

Gontzal Fontaneda

«Nahasteko baino ez du balio subjektuak»

Gasteiztarrak euskara aztertu, ikasi eta irakasteko metodo heterodoxoa idatzia du. Esate baterako, subjektua haizea hartzera bidali behar dela dio. Beste hizkuntzetako gramatiken arauei begira omen gabiltza eta horrela euskara zaila dela esatea ez omen da harritzekoa.

ONINTZA IRURETA

Argazkiak: Jaizki Fontaneda

GONTZAL FONTANEDA (1943) 15 urte zituela hasi zen euskara ikasten Gasteizen, 1958an, eta 24 urterekin euskara irakasten. Irakasle zela ikasleen galderak erantzuten galtza bete lan izaten zuen. Eta beti entzun behar euskara hizkuntza zaila dela beste hizkuntzekin alderatuz. Ez, euskara hizkuntza logikoa, erraza eta egitura argikoa da Fontanedarentzat. Gakoa: ikasteko, irakasteko zein aztertzeko erabiltzen den gramatika metodo okerra omen. Gramatika ofiziala beste hizkuntzen metodoari begira omen dago eta hark euskarari ez dio balio. Hitz bitan ulertzeko: beste hizkuntzak izen sintagmaren eta aditz sintagmaren batasunean oinarrituta daude, euskal aditza berriz, hiru sintagmak jokatzen dute: nor-nori-nork hirukoteak. Subjektuaren bila ibili beharrean nor-nori-nork famatuari egin behar zaiola kasu, alegia. Eta deklinabidearen kontzeptua ere ez darabilgu ondo; Fontanedaren ustez euskarak izenak ez ezik aditzak ere deklinatzen ditu.



“Latinezko gramatikan ikasi eta irakasten dugu gramatika horrekin zerikusirik ez daukan hizkuntza”.

Urrestarazuren gramatikarekin hasi zinen orduan.

Gero azaldu zen nor-nori-nork, Elvira Zipitriaren bidez. Estibalizko priorea bere ikaslea zen, nire adiskidea eta liburuxka bat idatzi zuen: *Nor-nori-nork el secreto del verbo vasco*. Nire ustez nor-nori-nork ez da aditzaren sekretua bakarrik, perpausaren ardatza baizik, aditza jokatze gogoan izan behar duguna. Subjektua zein den jakiteak ez dio axola, aditza eratzeko balio ez duelako. Jendea nahasteko baino ez du balio subjektuaren kontzeptuak.

Noiz konturatu zinen hortaz?

Irakasle nintzela. Ikasleak irakasleari galderak egiten dizkio eta ai-ai! Horrela sortu zitzaidan kezka. “Zergatik da euskara horren zaila?” diote ikasleek eta horretara heldu nintzen: guk latinezko gramatikan ikasi eta irakasten dugu gramatika horrekin zerikusirik ez daukan hizkuntza.

tika! *Oraciones objetivo-pronominales*, alegia, lehen ez zegoela nor-nori-nork. Urrestarazuren hiruzpalau ikasle Gasteizen zortzi bat ikasleri irakasten hasi ziren. Horrela hasi nintzen ni.

Ikasleen bultzadaz landu zenuen beraz teoria hori.

Galdera batzuentzako erantzunik gabe geratzen nintzen. “Zergatik erabiltzen dut hemen *nai*z eta hemen *du*?” Pentsatu eta pentsatu horretara iritsi nintzen: euskara bestelakoa

Argitaratzeaz

Euskal euskara, euskara aztertze-ko metodo heterodoxoa, 2001ean idatzi zuen Gontzal Fontaneda eta sarean zintzilikatua du hizkuntzalarri zein irakasleentzat (www.fontaneda.net). Gramatika metodoa argitaratzeko gogoz dabil eta sarean lan egiten duen Amerikako Estatu Batuetako argitaletxe batek baiezkoa eman dio. Lulu argitaletxearen bidez *Euskal euskara* metodoa eta Hika ikasteko *Hikasi* metodoa ere argitaratuko ditu, lehena heterodoxoa, bigarrena ortodoxoa. Bata zein bestea edonorentzat lagungarri baldin badira, Fontaneda gustura.



denez gramatika ere bestelakoa dauka. Hori oso heterodoxoa da, gramatika ofiziala latinaren munduan baitabil.

Gaztelaniak, frantsesak eta Europako gainerako hizkuntzek gramatika egitura berdina al daukate?

Ezagutzen ditudan hizkuntza guztietan, ingelesa, errusiera, italiara, frantsesa, katalana..., aditza subjektuari begira dago. Subjektua eta aditza, eta besterik ez. Euskaraz ez. Euskaraz nor, nori eta nork aldatzen direnean aditza aldatu egiten da. Orduan, zein da subjektua? Bost axola! Inportanteenak aditza jokatzen duten elementuak dira.

Jendeak dio beste hizkuntzekin alderatuta zaila dela euskara.

Nire ustez ez. Eman dezagun aleman batek gaztelania ikasi nahi duela eta Madrila joan dela. Ikasgelan eseri eta irakasleak esan du: "Orain *amar* aditza ikusiko dugu. *Yo amo, tu amas...*". Imaginatu irakasleak dioela: "Orain esadazue zein diren nor, nori eta nork". Horrek ez luke zentzurik ezta? Guk, hain justu, alderantzizko galde-

ra egiten dugu: zein da subjektua? Zertarako subjektua? Gaztelania irakasteko nor-nori-nork irakastea *txorrada* handia da eta guk subjektua ikastea beste hainbeste.

***Euskal euskara* metodoa landu zenuenean beste irakasleen laguntzarik izan al zenuen?**

Bakarrik hasi nintzen. Frankismoaren azken urteetan irakastalde handia

“Bizpahiru urtetan eman
genituen klaseak nire
metodoarekin eta inork ez
zuen ‘aita esan du’ esaten.

Nire ustez funtzionatu
egiten du”

sortu genuen hemen eta diru pixka bat lortu genuenean geure ikasliburua egin genuen. Irakasleei planteatu nien neure ideia, subjektua baztertu eta nor-nori-nork erabiltzea, eta baietz esan zuten. 1981ean AEK eratu zen eta metodo berriekin nirea ahaztuta

geratu zen. Baina lau urtetan eman genituen klaseak eta inork ez zuen “aita esan du” esaten. Nire ustez funtzionatu egiten du.

Irakasle lanak utzi zenituenetik ikaslerik izan al duzu?

Beti daukazu laguntza behar duen ilobaren bat edo adiskideren baten seme-alabaren bat IVAPeko hizkuntza eskakizuna prestatzen ari dena. Zailtasunen aurrean neure ikuspegia eman diet eta ondo moldatu dira, gramatika ofizialeko nahasketarik gabe.

Euskaltzaindiari aurkeztu zenion metodoa.

Nire ustez ez zuten irakurri. 1975ean, euskara titulu bat atera nahi nuela medio tesina bat idatzi behar nuen eta pentsatu nuen horri buruz idaztea, web gunean dudanari buruzko laburpena, alegia. Bidali nuen eta titulu eman zidaten, ez dakit ordea irakurri zuten, inork ez zidan esan ondo ala gaizki dagoen.

Ez al duzu kontrastatu adituren batekin?

Ez. Euskaltzaindiako Gramatika Batzordera bidali nuen lana eta erantzun didate lan hori egiten aritzea interesgarria dela, baina beraiek beste modu batera egiten dutela lan. Alegia, “segi zeure bidean” esan didate. Nire lanaren heterodoxotasuna ikusita badakit Euskaltzaindiak orain ez duela dena hankaz gora jarriko! Alabaina, oso kritika gutxi egin didate eta hori gauza txarra da.

Kontrastatzea nahiko zenuke.

Elkar-eko editore bati kopia bat eman nion eta hark aditu bati. Aditu horren kritika badaukat eta gauza batzuetan arrazoia zuen eta aldatu egin ditut gauza batzuk eta beste gauza batzuetan tinko nago. Baina bi kritika baino ez ditut jaso eta web gunea izan arren oso urri idatzi didate. ■

Babeslea: Tolosako Udala

Tolosako
Euskara Zerbitzua

Egunero zure "euskara" esanetara

Plaza Zaharra 6A • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 697 453
euskara@tolosakoudala.net